

Noticia y bibliografía de Juan San Martín

FÉLIX MARAÑA

En la cultura vasca contemporánea, Juan San Martín Ortiz de Zárate (Eibar, 1922) es conocido por sus múltiples facetas y actividades, que surgen desde su juventud, y que se extienden a lo largo de las décadas de los cincuenta y sesenta, con especial dedicación. No hubo jornada cultural, semana cultural, actividad editorial o artística, donde no se sintiera la presencia y la colaboración activa de Juan San Martín. El escritor era requerido para dar conferencias, cursos, charlas, a lo largo y ancho del País Vasco, bien fueran sus intervenciones sobre literatura, lengua, arte, etnografía, cultura popular.

Esa dedicación múltiple, rigurosa y generosa, le valió la consideración y el aprecio de importantes personajes de la cultura vasca, como José Miguel de Barandiarán, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena o Luis Villasante, entre otros, con quienes trabajó y colaboró en múltiples programas culturales. Tuvo el mismo afecto y consideración de otro prohombre, Toribio Etxebarria, su paisano, quien, en aprecio de su personalidad cultural y humana, dedicara a Juan San Martín el poema "Stonehengw'ko zabalían" ("Obertura de Stonehengw"), que publicó en el libro *Ibiltaritzanak* (Poemas del camino).

Dedicado con el mismo entusiasmo a la fotografía que a la investigación histórica, o a la tarea de académico de la Lengua Vasca, San Martín ha sido el responsable durante varios años de la edición de la revista "Egan" (1983-1989), secretario de la Academia de la Lengua Vasca (1967-1978) y vicepresidente de la misma institución en este último año. En esta tarea ha sido corresponsable del proceso de unificación de la Lengua, iniciado en la década de los años sesenta, fundamentalmente a partir del congreso de Arantzazu, que tiene lugar en 1968. También ha intervenido con el mismo entusiasmo en las campañas de alfabetización.

Juan San Martinen berri eta bibliografia

FÉLIX MARAÑA

Euskal kultura garaikidean, Juan San Martin Ortiz de Zarate (Eibar, 1922), gaztetandik sortu eta bereziki berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan zehar garatu zituen ekintzengatik egiten zaigu eza-guna. Ez zen izan kultur ekitaldirik, aste kulturalik, argitarapen edo arte ekintzarik, Juan San Martinen presentzia eta parte hartze zuzena pairatu ez zuenik. Idazlea, Euskal Herri osoan zehar hitzaldi, ikastaro, hizketaldiak eskeintzeko deitzen zuten. Eta haietan literaturaz, hizkuntzaz, arteaz, etnografiaz, herri kulturaz aritu zen.

Dedikazio anitz, zorrotz eta eskuzabal hark, beste batzuen artean, Jose Miguel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena edota Luis Villasante bezalako kultur pertsonai garrantzitsuen onespena eman zion. Haiekin elkarlanean kultur egitarau ugarietan aritu zen. Baita beste goigizon baten sentipena eta onspena ere jaso zuen, Toribio Etxeberriarena hain zuzen ere, bere herrikidea zena, hark Juan San Martini, bere kultur eta giza izaeraren eskerronez, "Stonehengw'ko zabalian" poema eskeini zion, *Ibiltarixanak* liburuan argitaratuko zuena.

Argazkilaritzari, azterketa historikoari edota Euskaltzaindiako nagusi lanari ere sutsuki eskeini zion bere burua. San Martin "Egan" (1983-1989) aldizkariaren argitalpenaren arduraduna izan da urte askotan, Euskaltzaindiako idazkaria ere bai (1967-1978), eta azken urte honetan erakunde bereko lehendakariordea ere izan da.

Hirurogeiko hamarkadan, hizkuntzaren batasunerako prozesuan, 1968an eratu zen Arantzazuko kongresuarekin hasi zena, erantzulekidea izan da. Eta alfabetizazio kanpainetan ere gogotsu parte hartu du.

Pero si todas esas tareas son ciertas, aunque no sean todas las que realmente ha realizado, a Juan San Martín, a quien se conoce como prologista de múltiples libros de cultura vasca, editados en los años sesenta, hoy no se le conoce o reconoce como poeta, como constructor de una línea lírica que, superando el realismo de su época, y sin desdeñar la intimidad, compone versos de tono existencial, lo que le vale el aplauso de su amigo Gabriel Aresti, de Mikel Zarate (cuya opinión y análisis recojemos en estas páginas) y de Jorge Oteiza, entre otros. San Martín no sólo es el prologuista del más importante libro de Aresti, *Harri eta Herri*, publicado en 1964, sino el hombre a quien Aresti sometía a criterio cuanto había de publicar. "*Nada debe hacerse sin consultar a Juanito*", sentenciaba Aresti.

Juan San Martín, junto con Aresti, Joxe Azurmendi y Mikel Lasa, representan en aquellos años de la década de los sesenta las voces de los poetas que ponen el euskara en la modernidad lírica, superando, aunque reconociendo, las enseñanzas de la tradición literaria inmediata, que representaban Lauaxeta, Lizardi, Salbatore Mitxelena, Mirande u Orixe, pero contemplando, también, etc... las poéticas de Blas de Otero y Celaya.

En 1965, y atendiendo a aquella expresión de modernidad, Jorge Oteiza confeccionó una antología de la poesía vasca, encargándose de que esta fuera bilingüe, y en ella recogió poemas de Aresti, San Martín, con el seudónimo de "Otsalar", Azurmendi y Lasa. Oteiza escribió un prólogo extenso e intenso, que publicó luego en su libro *Ejercicios espirituales en un túnel* (1984), y que representa y advierte ese salto a la modernidad que suponen las creaciones de esos cuatro poetas. Oteiza escribió el prólogo y la selección (Irún, 1965), realizó la portada, y encargó un epílogo a Blas de Otero, quien lo escribió también. Juan San Martín que, como Oteiza, vio con tristeza que aquella antología no se llegaría a publicar, guardó el epílogo de Otero, y nos lo entregó recientemente. Es propósito de esta colección que edita nuestra Universidad del País Vasco, y compromiso de sus directores, llevar a cabo esa edición en breve, tal como fuera concebida en 1965, pues no ha perdido actualidad cultural, y, si cabe, ha incorporado el valor testimonial y documental de orden histórico, con el paso del tiempo.

En este libro, *Tiempo ardiente*, hemos querido recoger esa andadura poética, que se inicia en 1954, y que resuelve el autor en 1977, tiempo que explica un ciclo creativo, y da paso a otro de más presencia pública de San Martín. En sus poemas se advertirá las gamas de su múltiple expresión lírica, y otros sentimientos y actitudes, como el sentido del humor (No se puede olvidar su condición de eibartarra), que revelan algunas composiciones de los años sesenta, fundamentalmente las dedica-

Lan guzti horiek benetazkoak badira ere, nahiz eta berak egindako guztiak ez azaldu, hirurogeiko hamarkadan argitaratu ziren liburu askotako hitzaurreen egiletzat ezagutu arren, Juan San Martin, garaiko erre-alismoa gainditu eta intimotasuna ukatu gabe, existentzial giroko ber- tosoak sortu dituen arren, egun, ez da ezagutzen edota onartzen poeta gi- sara, ezta bide liriko baten eraikitzailetzat ere. Horrek Gabriel Aresti, Mikel Zarate (horren iritzia eta azterketa orrilde hautean jaso dugu) eta Jorge Oteizaren txalobizia ekarriko du. San Martin ez da bakarrik Ares- tiren liburu garrantzikoaren hitzaurrearen egilea, *Harri eta Herri*, 1964an argitaratua, baizik eta Arestik kaleratuko zuen edozein lanaren zuzentzailea ere ba da. "Juanitori galdetu gabe ez dago ezerrez egite- rik", erabakitzen zuen Arestik.

Juan San Martinek, Arestik, Joxe Azurmendik eta Mikel Lasak, hiru- rogeiko hamarkada hartan euskara lirika modernoan lekutzen duten po- eten ahotsa ordezkatzten dute. Eta nahiz eta Lauaxetak, Lizardik, Salba- tore Mitxelenak, Mirandek edota Orixek irudikatzen zuten literatur tra- dizioaren gertukotasuna onartu, horien irakaspenak ere gainditu zituz- ten. Modu berdinean kontutan hartu zituzten Gabriel Zelaya eta Blas de Oteroren poetikak.

1965ean, eta modernitatearen adierazpen horri erantzunez, Jorge Oteizak, euskal poesiaren antologia bat landu zuen, eta hura elebiduna izan zedila arduratu zen, bertan Aresti, San Martin, "Otsalar" goitizenez, Azurmendi eta Lasaren poemak bildu zituen. Oteizak hitzaurre zabal eta biziago bat idatzi zuen, gero *Ejercicios espirituales en un túnel* (1984) bere liburuan argitaratuko duena. Hitzaurre horrek lau poeta horien sormen lanek suposatu eta ordezkatzten duten modernitaterako jauziaz ohartarazten gaitu. Oteizak hitzaurrea eta aukeraketa idatzi zituen (Irun, 1965), azala burutu zuen, eta Blas de Oterori hitzaldiostea idazte- ko ardua eman zion, eta horrek baita idatzi ere. Juan San Martinek, Oteizak bezala, antologia hura argitaratu ez izana tristeziak ikusi, eta Oteroren hitzaldiostea gorde zuen, orain gutxi eman digun bera. Geure Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratzen duen bilduma honen asmoa, eta haren zuzendarien konpromezua, argitalpen hori epe labu- rrean gauzatzea da, 1965ean bururatu zen modu berdinean, ez baitu kul- tur gaurkotasunik galdu, alderantziz, denboraren joanean taxu histori- koaren testigantza eta dokumentazio balioa gehitu du.

Liburu honetan, *Giro gori*, ibilbide poetiko hori jaso nahi izan dugu, hain zuzen 1954an hasi eta autoreak 1977an amaitzen duena; denboraldi horrek sorkuntza ziklo bat azaltzen du eta San Martinen agertaldi publi- koaren beste garai bati ematen dio hasiera. Bere poemetan adierazpen liriko anitzen sorta ezberdinak nabaritzen dira, eta umorearena bezala-

das a la unificación de la lengua. Hombre conciliador, ha participado a su vez en funciones públicas. En 1978 el escritor es nombrado director general en el Consejo General del País Vasco, y participa como tal en una tarea de asesoramiento y vigilancia en la defensa del patrimonio artístico vasco.

En 1989 fue nombrado primer Defensor del Pueblo del País Vasco, cargo en el que ha desplegado una intensa tarea social y cultural, a su vez, publicando libros, prospectos y haciendo informes en los que priva su sentido universal de la cultura y su afecto inconfundible por el País Vasco.

Juan San Martín es miembro de diversas instituciones culturales, como la Sociedad de Estudios Vascos, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi y miembro de honor, como fundador, de Euskal Idazleen Elkartea (EIE), la Asociación de Escritores en Lengua Vasca, y Euskal Itzultzaileen Elkartea, la Asociación de Traductores e Intérpretes (EIZEL).

Fue colaborador y miembro de la dirección de Euskal Bibliografía, bajo la dirección de Jon Bilbao.

Como Ararteko o Defensor del Pueblo del País Vasco fue nombrado a su vez presidente del Instituto Europeo del Ombudsman (1994–1995).

San Martín fue introductor, como traductor y divulgador, de muchos poetas universales. Basta con recorrer los capítulos anteriores de este libro para ver la constante tarea de divulgación que ha hecho en euskara de los más importantes poetas de la literatura universal.

Profesionalmente ejerció en diversas especialidades industriales en su Eibar natal y más tarde prestó sus servicios en empresas de importación de maquinaria. Su afición a la lectura desde la niñez ha constituido la base de su formación autodidacta.

En el Club Deportivo de Eibar colaboró desde muy temprana edad. Ocupó diversos cargos, incluso el de presidente, y dentro de su organización social, estructurada tradicionalmente en diversas secciones deportivas, de manera inusual creó una sección de cultura, desarrollando la biblioteca y organizando conferencias y cursillos de manera complementaria a la actividad deportiva.

Su vocación deportiva ha sido el montañismo, que lo ha practicado en todas sus modalidades. Fue monitor de la Escuela de Escala y Alta Montaña. Basta decir que ascendió al Naranjo de Bulnes por tres vías distintas, además de abrir nuevas vías en algunas cumbres del Pirineo, recorrió prácticamente todo el macizo de Picos de Europa, Gredos y la cordillera pirenaica y gran parte de los Alpes. Participó en las expediciones espeleológicas a la sima de San Martín en Larra. En las publicacio-

ko beste sentipen eta jarrera batzuk (ezin alde batera utzi bere eibartasuna), batez ere hirurogeiko hamarkadan, hizkuntzaren batasunari eskeinitakoetan. Gizon bateratzailea izan da, eta aldi berean eginkizun publikoetan ere parte hartu du. 1978an idazlea, Euskal Kontseilu Nagusiko zuzendari izendatu zuten eta horren ondorioz euskal ondare artistikoaren defentsarako aholkularitza eta begiratzaile lanak burutu zituen.

1989an Euskal Herriko lehenengo Ararteko izendatu zuten. Kargu horretan sozial eta kultur lan gartsua gauzatu du, Euskal Herriarekiko begirune nahasezina eta bere unibertsal kultur sena nabarmentzen diren liburu eta proiektuak kaleratuz eta agiriak eginez.

Juan San Martin kultur erakunde ezberdinen kide da. Haien artean: Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Adiskideen Elkartea, Aranzadi Natur Zientzien Elkartea. Euskal Idazleen Elkarteko (EIE), eta Euskal Itzultzaileen Elkarteko (EIZEI) sortzailetariko bat denez, horietan ohorezko kide da.

Jon Bilbaoren zuzendaritzapean, Euskal Bibliografiako zuzendaritzaren kidea eta laguntzailea izan zen.

Ararteko zenean Ombudsman Europear Institutuko lehendakaria ere izan zen (1994-1995).

San Martin, unibertsal poeta askoren sartzaille, itzultzaile eta zabal-tzailea izan da. Liburu honetako aurreneko kapituluak irakurtzea aski da unibertsal literaturako poeta garrantzitsuenen euskarazko zabalkunde lan etengabeaz ohartzeko.

Lanbidei dagokionez, Eibar bere jaioterrian, industri bereizitasun ezberdinak gauzatu zituen eta beranduago makina inportaziorako fabriketan eskeini zuen bere lanerako gaitasuna. Haurtzaroko irakurzaletasuna bere burumaisu hezkuntzaren oinarria izan da.

Oso gaztetandik Eibar Kirol Elkartean parte hartu zuen. Kargu ezberdinak, haien artean lehendakariarena, betez, eta haren sozial antolakuntzaren barne, kirol atal ezberdinetan banatua, modu ezohizko batean, kultur sail bat sortu zuen, kirol ekin-tzari osagarriak zitzaizkion hitzaldiak eta ikastaroak antolatuz.

Baina bere benetazko kirol bokazioa mendizaletasuna izan da, era Guztietara burutu duena. Eskalada eta goimendietarako Eskolan begirale lanak egin zituen. Nahikoa da Bulneseko Laranjoko gailurra hiru bide desberdinetatik egin zuela esatea, edo gainera Pirinioetako gailurretara heltzeko bide berriak egin zituela, eta Picos de Europa, Gredos eta piri-near ia mendilerro osoa eta Alpesetako zati handi bat zeharkatu zituela. Larrako San Martin lezezulora antolatu zen espeleologi espedizioan ere parte hartu zuen. "Pyrenaica" eta "Munibe" liburuek aipaturiko ekintza

nes "Pyrenaica" y "Munibe" se recogen muchos relatos sobre dichas actividades y, por su historial, la Federación de Montañismo le condecoró con la medalla de plata al mérito deportivo.

Durante muchos años publicó artículos de difusión cultural y crítica literaria en diversas revistas y otras publicaciones periódicas, como la sección semanal bilingüe que escribió en el periódico "Hoja del Lunes", de San Sebastián. Además de en las revistas poéticas ya mencionadas anteriormente, San Martín publicó poemas en la revista "Kantil", editada en dicha ciudad. Dichos poemas fueron traducidos al castellano por Jorge G. Aranguren. J. I. Goikoetxea "Gaztelu", el escritor vasco desaparecido, tradujo también algunos de sus poemas al castellano para la Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco editada por Auñamendi.

En sus correrías ha mostrado gran inquietud por las artes y la etnografía; de hecho ha descubierto diversos yacimientos prehistóricos, identificado obras de arte, pero al mismo tiempo se ha preocupado en recoger cantares populares y trabajos artesanales. Toda su vida ha sido una constante búsqueda de cosas y prueba de ello son, en gran parte, sus escritos.

LIBROS Y ESTUDIOS EN CASTELLANO Y FRANCÉS:

- *Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto (Navarra)* (En colaboración con Luis-Pedro Peña Santiago) San Sebastián, 1966.
- *Escritores euskéricos* (Bilbao, 1968)
- *Elgueta con Anguiozar y Ubera* (San Sebastián, 1975)
- "Eibar" (Capítulo monográfico en el *Diccionario Enciclopédico del País Vasco*, de la Editorial Auñamendi, Tomo X, San Sebastián, 1979),
- "Existe-t-il un art basque?" (En la enciclopedia *Etre basque*), Toulouse, 1983.
- ¿Existe un arte vasco?, en *Ser vasco* (Bilbao, 1986).
- "Las artes del pueblo vasco", en *Euskalerrria* (Barcelona, 1987).
- *Los Zuloaga, dinastía de artistas vascos* (Capítulo "El pintor Ignacio Zuloaga") (San Sebastián, 1988).
- *Santa María de la Asunción de Hondarribia. Su Historia, arte y arquitectura*. En prensa.

LIBROS Y ESTUDIOS EN EUSKARA:

- *Juan Antonio Moguel, bere bizitza ta lanak*. Zarautz, 1959
- *Zirikadak*. Zarautz. 1960
- *Eztenkadak*. Zarautz. 1965

askoren kontaktak biltzen dituzte eta Mendiko Federazioak, duen ihar-duera eredugarriagatik, kirol merituaren zilarrezko ikurra ezarri zion.

Urte askotan zehar kultur zabalkunderako eta literatur kritikazko artikuluak argitaratu ditu zenbait aldizkarietan, eta egin ditu baita noizean behinko beste argitarapen batzuk ere, Donostiako "Hoja del Lunes" egunkarian idatzi zuen asteroko atal elebiduna adibidez. Aurrean aipaturiko olerki aldizkarietatik aparte, hiri berean argitaratzen zen "Kantil" aldizkarian ere idatzi zuen. Poema horiek Jorge G. Aranguren gaztelateratu zituen. Baita J. I. Goikoetxea "Gaztelu", desagertutako euskal poetak, Añamendik argitaratutako Euskal Herriko Entziklopedia Ilustratuarentzat, haren zenbait poema gaztelateratu egin zituen.

Bere ibilalditxoetan artea eta etnografiarekiko zaletasun handia agertu du: historiaurreko hobiak aurkitu eta artelanak antzeman ditu. Modu berdinean, herri kantak eta artisautza lanak jasotzeaz arduratu da. Bere bizitza guztia gauzen etengabeko bilaketa bat izan da, eta haren idazlanak, hein handian, horren islada dira.

FRANTSES ETA GAZTELERAZKO LIBURU ETA AZTERGAIK:

- *Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto (Navarra)* (En colaboración con Luis-Pedro Peña Santiago) Donostia, 1966.
- *Escritores euskéricos* (Bilbao, 1968)
- *Elgueta con Anguiozar y Ubera* (Donostia, 1975)
- "Eibar" (Capítulo monográfico en el *Diccionario Enciclopédico del País Vasco*, de la Editorial Añamendi, Tomo X, Donostia, 1979),
- "Existe-t-il un art basque?" (En la enciclopedia *Etre basque*), Toulouse, 1983.
- ¿Existe un arte vasco?, en *Ser vasco* (Bilbao, 1986).
- "Las artes del pueblo vasco", en *Euskalerrria* (Barcelona, 1987).
- *Los Zuloaga, dinastía de artistas vascos* (Capítulo "El pintor Ignacio Zuloaga") (Donostia, 1988).
- *Santa María de la Asunción de Hondarribia. Su Historia, arte y arquitectura*. En prensa.

EUSKARAZKO LIBURU ETA AZTERGAIK:

- *Juan Antonio Moguel, bere bizitza ta lanak*. Zarautz, 1959
- *Zirikadak*. Zarautz. 1960
- *Eztenkadak*. Zarautz. 1965
- *Uhin berri* (Antología de poesía joven, 1964-1969). Donostia, 1969.
- *Euskeraren inguruan* (En la obra enciclopédica *Lur eta Gizon*). Oñate, 1974.

- *Uhin berri* (Antología de poesía joven, 1964-1969). San Sebastián, 1969.
- *Euskeraren inguruan* (En la obra enciclopédica *Lur eta Gizon*). Oñate, 1974.
- *Hegatsez* (Antología de prosistas contemporáneos, en colaboración con Serafín Basauri). Zarautz, 1971.
- *Euskal Artea* (En la obra enciclopédica *Lur eta Gizon*). Oñate, 1974.
- *Gogoz*. San Sebastián, 1978.
- *Literaturaren inguruan*. San Sebastián, 1980.
- *Euskera agerkaria*, "aurkibidea-Index-Índice, por autores y materias" de los años 1920-1979. Bilbao, 1980.
- *Bidez*. San Sebastián, 1981.
- *Erromanikoa Euskal Herrian*. San Sebastián, 1983.
- *Landuz*. San Sebastián, 1983.
- *Jose Manterola*. San Sebastián, 1985.
- *Antzinako Eibar*. Eibar, 1993.
- *Euskararen ostarreak*, San Sebastián, 1998.

AUTOR DEL LIBRO BILINGÜE

- *Dichos y hechos - Esanak eta eginak*. Vitoria-Gasteiz, 1994.

- *Hegatsez* (Antología de prosistas contemporáneos, en colaboración con Serafín Basauri). Zarautz, 1971.
- *Euskal Artea* (En la obra enciclopédica *Lur eta Gizon*). Oñate, 1974.
- *Gogoz*. Donostia, 1978.
- *Literaturaren inguruan*. Donostia, 1980.
- *Euskera agerkaria*, "aurkibidea-Index-Índice, por autores y materias" de los años 1920-1979. Bilbao, 1980.
- *Bidez*. Donostia, 1981.
- *Erromanikoa Euskal Herrian*. Donostia, 1983.
- *Landuz*. Donostia, 1983.
- *Jose Manterola*. Donostia, 1985.
- *Antzinako Eibar*. Eibar, 1993.
- *Euskararen ostarreak*, Donostia, 1998.

LIBURU ELEBIDUNAREN EGILEA

- *Dichos y hechos - Esanak eta eginak*. Vitoria-Gasteiz, 1994.

(José Luis Padrón Plazaolaren itzulpena)